

55.
zk.

1997KO
UZTAILA

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

gasteiz

gasteizko euskaldunen aldizkaria

ENKEO ITUNDUA 48 / 27

Hi haiz
hi,
maixua!

UZTAILAREN 17AN,

ERIC CLAPTON

GEU, idazle "USO gehiegi"

Bustita zegoela aurkitu genuen. Bustita eta beldurrak eta hotzak erdi hilik. Hilabete eta erdiko eme ilehoria zen, albaitariak gero esan zigunez, Euskal Ar-tzain Txakur kume bikaina. Norbaitek urtegira bota zuen ito zedin, baina Gorri (horrela deitu dio bere jabe, edo bizilagun, berriak) neska bizi eta gogorra dela erakutsiz irten eta harri baten gainean etzanda geratu zen norbait etxera eramateko zain. Hogeita lau ordu ere ez genuen behar izan Gorritxurentzako etxea aurkitzeko. Kosta egiten zait horrelako ahalegin txikia ez egiteagatik bizidun bat urtegira botako duen norbait dagoenik sinistea.

Txakurrak ahulak bailiran tratatzen ditugu; gure mendietaکو azken otsoak akatu nahi ditugu irauin bizitzeko ardiak jaten dituztelako; Piriniotako artzak zoetako karioletan giltzaperatu nahi ditugu, zonaldeko turismo eta abeltzantzari kalte egiten dietelako; behiak mikrotxipatzen ditugu, produkzioaren arabera dagokiona baino gramo erdi pentsu gehiago jan ez dezaten; eta hemen Gasteizen, Udaleko albaitariak ehundaka uso akatu dituzte "gehiegi" daudelakoan. "Arazo" horiek konpotzeko animaliak akatzea baino ez zaigu bururatzen. Eta ulergarria da, otsoak, artzak eta usoak hiltzea, horren ordez abeltzainen galerak konpentsatzeko primak ezartzea, usoen populazioa kontrolatzeko neurriak hartzea eta, oro har, elkarbizitza garatzeko plangintza eratzea baino errezagoa eta merkeagoa baita.

Gizakia munduaren izarra dela esaten du Bibliak (beno ez, Bibliak gizona esaten du, baina hori beste kontu bat da), eta guk hitzez hitz sinistu dugula ematen du. Animaliak, landareak, itsasoak,... natura guztia jarri dugu gure menpe, gure zerbitzura balego bezala. Horrela jarraituz gero, munduak gutxi iraungo duela diote adituek. Gutxi, baina ez gu arriskutan jartzeko bezain gutxi, beraz, zergatik kezkatu? Gainera, munduak irauten duen bitartean gizakiok gero eta erosoago biziko gara; beste bizidun guztiak berriaz, gero eta puteatuago. Dena, progreso eta erosotasuna oinarritzat duen bizitza-kalitate baten izenean.

Leire Lpz. de Aberasturi

agur t'erdi Zuhatzatik

KOLABORAZIOA

Goizero, iluntzero, egunero, txorien kantuek entzun; untxiak, xoxoak, faisanak ikusi eta gauero izarren argipean ixiltasuna dastatu. Hiritik hurbil eta era berean urrun. Hiriak erakutsi ezin duena erakutsiz. Kotxe zaratarik gabe. Semaforo argirik gabe. Kalerik gabe. Oinezkoentzat pasabiderik gabe. Dena koloretsu eta dena zabal. Harriko errepede bakar bi, Nazional Bata eta Nazional Bia.

Euriak bisitatzen gaituenean zein haserre datorren erakusten digu, lurra lokatz bihurtzen dala ikusiz. Euriak berak ere beste indar eta soinu bat dauka gure lonen azpian. Zuhaitz artean galdurik. Asfaltorik gabe. Urez inguraturik. Belar berdearen usaina usainduz. Ixiltasunaren hizkuntza entzunez. Lo taldean eginez. Bakardadeari aukera gutxi emanez. Elkar bizi. Elkar begiratu. Elkar ikusiz. Elkar lagunduz. Elkar animatu. Elkar jolastuz.

Diruaren premiarik gabe. Goxokirik erosi ezinik. Dirua gastatu ezinik. Dirua berriro etxera eraman beharrez. Kontsumista izan nahi eta ezinik. Dagoenarekin konformatzera derrigortuz.

Tximisten argi indartsua, bizia eta zabala, aurrez aurre ikusiz. Trumoiaren ahots gogorra norbere gainean

entzunez. Biak elkarrekin datozenean eguna gaua eta gaua eguna nola bihurtzen diren ezagutu.

Gainera, EUSKERA hutsez bizi daitekeela erakusten du, EUSKERA hutsarekin edozer egin daitekeela. EUSKERA ez dala bakarrik irakaskuntzako hizkuntza. EUSKERAz, wind surf, piragua, arrauna, belauntzia, edozein kirol mota ezagutu, ulertu, ikasi eta praktikatu daitezkeela frogatzen digu.

Azken batetan, NATURAK norberarengan duen indarra ezagutzeko aukera ematen digu. Hau da, ingurune natural baten erdi erdian bizitzeko aukera eskaintzen digu.

Aipatutako guztia, ene iritzi. ZUHATZA UHARTEA da edo Zuhatzak ematen duena da, bilatu, aurkitzen jakiten bada. Argi dago, norbera, pertsona, bera saiatu egin behar dela. Argi dago esandako guztia ez dela bat-batean aurkitzen, baina zin egiten dizuet Zuhatzak guzti hau duela eta ziurraski oraindik ere aurkitu gabe ditudan zenbait aberastasun gehiago.

ZUHATZA hiria ez den edozer da, hiriak ez duena dauka eta ezagutzeak pertsonaren izaera aberastu egiten du.



Koldo Gerraetxebarria, ZUHATZAKO IRLAKO ARDURADUNA

1997ko uztaila

2

geu idazle, leire lpz. de
aberasturi kolaborazioa,
koldo Gerrickaetxebarria

3

bertsoak, Asier Iriondo

6

GASTEIZ:

- berriak, berriak, berriak
- gurasoak ere euskaraz

8

- Araba Euskaraz
Argazkitan

15

KULTURA:

- Bideo Jaialdien klasiko
- Gasteizko hondartzak
- liburu kritika

19

KIROLAK: 1997ko
Arabako itzulua uztailean



asier iriondo

DOIWUA:
ZORTZIKO NAQUSIA



1996: asier pz. de Rarkamo

Abialdian

Habia geure egin artean
ezin geratu seguru
abiatzea dugu desio
eta heltzea helburu
abiadura txikiagatik
zergatik hainbat apuru
ABIALDIAN ipiniz gero
martxa hartuko badugu.

ABIALDIAN denok izanik
ezin gaitzeko aztora
etxe handiak eraiki dira
behetik hasita gora
agian norbait gauza gehiago
jakin nahian izango da
hau hala bada hotsegin beza
(908)679299 telefonora.

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAGA,

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

WIKO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU,

KOLABORATZAILEAK:

TXIFI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, WAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, OÑATI)

25

ERIC CLAPTON

legenda bizia Gasteizen

28

Spicgirlsmenak erasotu
gaitu.



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunen aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

berriak
gasteizko

Kalea mintzo

Geu Gasteiz
aldizkarian Kalea Mintzo
sailaren ardura duen kazetari
trebe eta famatua, geure
Gutxi ospetsua, ezkondu egin
zaigu. Norekin? Ba... GEU
elkartekoa den beste bazkide
batekin, Anarekin alegia.

Horrelako
ospakizunak ez direnez
egunero gertatzen eta bikote
ezkonberria urrunera joan
zaigula aprobetxatuz, Hego
Amerikan omen daude, Kalea
Mintzo honen txokoa
ezkonberriei eginiko omenaldi
txikia izan dadin nahi
genuke.

Hortaz, bikotea
zoriontzea besterik ez zaigu
geratzen: Urte askotarako!!!
Eta onak izan!

Zorionak...

Gutxiri eta Anari



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFN.
143883



GASTEIZ

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

**J
A
T
E
T
X
E
A**

☆
-Z
T
A
B
E
R
N
A
R
A
J
A
T
E
T
X
E
A

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



**TXUSTA
TABERNA**

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



**e
g
u
n
e
k
o**

gasteiz
gazteak eta kazetariak elkarlanean



"Denborak"

Urtero erosten zuen eguraldiari buruzko "El Zaragozano" liburuskatxo. Arratiarra zen gure attitte Gabino. Gorputzez txikia, baina jakinduriz ondo jantzia.

- Zergatik erosten duzu hori attitte -esaten genion- beti gauza bera baitakar?

- Fotokopiatzen duenak ere bizi beharko du ba! -haren erantzuna.

Eta halaxe, neuk urtero irakurtzen nuen liburuska hura, ia-ia buruz ikasi arteraino. Halaxe ikusi nuen nola beti asmatzen zuen. Negua bazen: "aste honetan elurra egingo du", Udaberrian "euria", Udan "beroa" eta Udazkenean "hego haizea". Beti asmatzen zuen, ez baitzuen inoiz non egin behar zuen esaten. Eta hantxe ikasi nuen "denporak", martxoan, ekainean, irailean eta abenduan izaten zirela, hilabete bakoitzeko bigarren eta hirugarren asteen bitartean.

Aste horietan gure attitte Gabinok, gauerdia aldera, petaka zaharretik tabakorria

atera, paper horiska batean borobildu eta metxero bultzan luze batekin piztuz, minutu mordoak pasatzen zituen etxe aurreko madariondoaren azpian eserita, kearen nora-bideari adi-adi begira. Eta "denporen" azken egunean, sukalderratu eta "Iparra" gailendu da, edo "Hegoa", edo "Mendebaldea" esaten zigun, "hurrengo hiru hilabeteetan hori nagusituko da". Gehienetan hala gertatzen zen gainera.

Gaur, ordea, dena aldatu dute. Badakigu egun ez direla garai bateko elurte latzak izaten, asko aldatu direla, ez baitugu ia elurrik ikusi ere egiten eta negua konturatu orduko pasatzen zaigu. Baina hortik "denporen" txandak aldatzera, aldea dagoela uste dut. Izan ere ekainekoak maiatzera aurreratu omen dira... Ilargia azkarrago ote dabil...? Edo gure Lur sakratua, atsedena hartu eta geldoago mugitzen ote da Eguzkiaren inguruan...? Ez dakit, baina arraro bilakatu zait. Gure attitte Gabinok burua jasoko balu... Auskalo!

Eta hau hola ez bazan sar nazatela kalabazan ...!



Non dago ? harrobia.

Ikasle kaxkarrei gertatzen zaien bezala esan daiteke ez Alavesek ez Baskoniak ez dutela aurtengo kurtsoa gainditu eta udan lan mordo dute irailean itxura on edo egoki bat azaltzeko lehiakideen artean. Bi taldeek izan dituzten "notak" ikusi ondoren burura datorkigun galdera zuzena hau da: Etxeko jendearekin akaso ez zituzten emaitza berdinak edo hobeagoak lortuko?

Gure hirian zalantzarik gabe bi kirol talde ditugu nagusi eta jarraitzaile gehien dituztenak: Alaves eta Baskonia. Biek erabiltzen dituzten baliabide eta aurrekontuak ez dira ez txantxetakoak. Bazkide kopuru aldetik milaka eta milaka dira denboraldi hasieran beren poltsikoak husten dituztenak, kasu gehienetan benetako sakrifizioa egin ondoren. Hau guztiau izango litzateke alde pozgarriena baina badaude zenbait tarte ilun eta hauetako potoloena harrobiarena da.

Goi mailako kirolak gero eta lotura handiagoa duela merkatal munduarekin guztion begibistan dago eta uste dut ez duela inork zalantzan ipiniko errealitate

hau. Egunkarietako eta telebista edo irratietako albiste nagusien artean bikote paregabea osatzen dute kirolak eta diruak. "Antzineko" kirol taldeak elkarte anonimoak bihurtu dira. Gaur egun kirolaria "txanpon" bat besterik ez da edozein momentutan berarekin negozioa egiteko edo trukatzeko. Kirol txapelketa bukatzen denean beren bazkide eta zaleen aurrean emaitza onak azaldu behar dituzte, ez bakarrik sailkapen arloan, baita diru kontutan ere. Kirol talde handiekin lehiatzea eta beraien arteko etsaiek izatea guztien ametsa da.

Baina honek guztiak ezin du bizi dugun errealitate penagarria estali. Nola ote da posible hainbeste kirolari gazteen artean ez aurkitzea inor baliogarria izan daitekeenik? Non geratzen da gure hiriko auzoetan, ikastetxeetan, elkartetan kirol mailan lan egiten duen jendearen lana? Etxeko hainbat jokalarik aukera bat baino gehiago merezi du kirol talde hauetako arduradunek jakin dezaten zer esan nahi duen "hiriko koloreak sentiitzea".

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo
platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak

ARABAR MUSIKA

Arabako musika taldeen gida bigarrenez kalean

Izadi Argitaletxeak bigarren urtez jarraian "Arabako Musika Taldeen Gida" kaleratu berri du. Liburu txiki honetan gure herrialdeko 65 talderen informazioa agertzen da, bakoitzaren ezaugarri nagusiekin eta beraiekin harremanetan jartzeko telefono zenbakiekin batera. Iazko harrera ona ikusita, aurturko esperientzia errepikatzea erabaki dute eta hobekuntza batzuk sartu dituzte. Aipatzekoak dira, besteak beste, kolaborazioak. Bertan, Pedro Espinosa (Gasteiz Irratiko kazetaria eta Potato taldekide ohia) eta Txabi Arnal Gilek (Geu Gasteizko Kazetaria) parte hartu dute. Ia 90 orritan zehar informazio zehatza aurkezten digute. Dohainik jaso nahi baduzu, eskatu besterik ez duzu egin behar helbide honetara idatziz edo zuzenduz: Diaz de Olano Margolaria, 22 behea. Talde euskaldunei dagokienez, kopurua haunditu egin dela esan behar dizuegu eta, dagoeneko, 15 taldek erabiltzen dute euskara. Ez da ez kopuru txikia.

DAVID ALVEZ



'Hiru Haundiak' VIII. argazki lehiaketa

PARTEHARTZAILEEN ARGAZKI GUZTIAK IKUSGAI IZANGO DIRA ERAKUSKETA BATEAN

Manuel Iradier" txangozale elkar-teak "Hiru handiak" argazki lehiaketaren deialdia egin du. Mendia lelo-tzat harturik, parte hartu nahi dutenek irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte beren argazkiak (4 gehienez).

Guztira hiru sari banatuko dira baina, ohikoa den bezala, ez da dirurik banatuko. Elkar-teak berak lan sarituak argita-ratuko ditu eta aurkeztutako guztiak urriaren 13a eta 24a bitartean bere lokaletan egon-go dira ikusgai erakusketa ireki batean.

Argazki lehiaketa honekin, "Manuel Iradier" elkar-teak naturarekiko grina zabaldu nahi du, kirol eta kultur ikus-puntuak elkarlotuz. Gainera, lehiaketaren izena oso sustrai-tua dago elkar-tearen baitan, izen bereko martxa batean jaio baitzen, aspaldi, "Manuel Ira-dier" txangozale elkar-tea.

EDU LPZ. LUZURIAGA



Gariren bigarren diska kalean

Legazpiko 33 urteko abeslari honek, Hertzai-nak taldea desegin ondoren, orain dela gutxi ekin zion bakarka-ko karrerari. Bere lehenengo diskoan ("Gari" izenekoa) agertu ziren dagoeneko bakar-lari honen musikaren nondik-norakoak: Intensitatea, letra poetiko eta landuak... Eta "Eguzki berritan zaude" izene-ko bigarren diskoak hori kon-firmatu egin du. Eta gainera aurrerapausu bat egin du: Komunikazio handiago dago diskoan.

Alde batetik, taldea finka-tu egin da, nahiz eta azkenean Gari moduan agertu. Kontzertu asko egin eta gero ateratzen da dis-koa eta nabarmendu egiten da bigarren honetan eritmoa sen-doagoa dela. Letrari dagokio-nez, melodia nagusi dela esan dezakegu eta bertsolarien zera hori nabaritzen dela ere bai. Ez da harritzekoa, zeren -besteak beste- Jon Maiak eta Igor Elortzak parte hartu baitute.

DAVID ALVEZ

'Tranbiari alternatiba' plataforma hiritarra

METRO ARINAREN KONTRAKO TALDEA SORTU DA GASTEIZEN

Joan berri den ekainean, Gasteizen tranbiaren aurkako plataforma hiritar bat sortu da: "Tranbiari Alternatiba".



Plataforma honen sorreran zazpi auzo elkar-te, Ariznaba-rrako Foro Kulturala, Ezker Batua eta %0,7 plataformak hartu dute parte, baina azpima-rratu nahi izan dute "Tranbiari Alternatiba". plata-forma irekita dago-ela eta hiriaren etorkizunari buruz-ko erabaki garran-tzitsu eta garestie-tan guztiok zeres-a-nik badugula.

E. LPZ. DE LUZURIAGA



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

MIKO

izozkiak

‘Casa Ubu’ arte hurbiletik dastatzeko

Ekainaren hasieratik badago Gasteizen erakustareto berezi bat, jende-ari artearen hurbileko ikuspegia erakutsiko diona. Areto berriaren izena “Casa Ubu” da. Bertan, artista-ri beste kokagune bat eman

nahi zaio ikuslearekiko, “artista ez du bakarrik bere obra etxean sortu behar, giza-alorrean ere sartu behar du”, adierazi du ekimen honen bultzatzaile den Maitane Milikuak.

Artistaren alde materiala- rekin batera, mundua eta gizartearekiko duen jarrera bilatzen du erakustareto berri honek. Era honetan, arteak egun daukan kutsu sakratu, elitista eta ulerkaizta ezabatu nahi du, artearen izaera gertuago baten alde.

“Casa Ubu”-k Alfred Jarry idazle frantziarraren antzerki pertsonaia batetik hartu du bere izena, errealitatearen ikuspegi grotesko eta xehebrea ematen zuena, hain zuzen ere.

Erakustaretoak bi solairu ditu, bata inguruko artisten lanekin osatutako erakusketa iraunkorra eta bestea aldakorra. Denboraren poderioz musika, zinema, performance, e.a. sartzen joango dira Uburen etxe honetara.

Edu LPZ. DE LUZURIAGA

XVII. Nazioar- teko Folklore Jaialdia

Uztailaren 29, 30 eta 31an Gasteizko XVII. Folklore Jaialdia ospatuko da. Egun horietan, Principal Antzokian dantza emanaldiak eskainiko dituzte arratsaldeko zortzi eta erdietatik aurrera Txina, Ukraina, Kroazia eta Togoko dantza taldeek.


Lehendabiziko egunean, Txina eta Ukraina arituko dira, bigarrenean Kroazia eta Togori egokituko zaie txanda

eta Jaialdiari amaiera emateko, uztailaren 31n Gasteizko Udal Folklore Akademiak eta Musika Bandak “Euskal Erromeria” antzeztuko dute.

Arabako pasaleku berdeak

Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Sailak, Arabako Pasaleku Berdeen gida argitaratu berri du. Bertan, gure lurraldeko bost ibilbide eder baina ezezagunen adierazpenak ematen dira, gune hauek txangoak

burutzeko aukeratzen dituzten pertsonentzat. ‘Kolada’ bakoitzaren natur zehaztasunak azaltzeaz gain, inguruneok his-



torikoki izan duten garrantzia ere azpimarratzen da Gidan.

ASIER PZ. DE KARKAMO

II. JOKU JAIALDIA

HILAREN 7TIK 13ra bitartean Gasteizen II. Joku Jaialdia izango da. Ekitaldi honetan, zazpi jokugune egongo dira hirian zehar sakabanaturik, eta bakoitzak bere eskaintza berezia egingo du.

Aurtengo nobedaderik nagusia Florida parkean egokituko diren jokuak izango dira. Beroietan ingurugiro-hezkuntzari emango zaio bereziki garrantzia. Parkea bost zatitan banatuko da eta zonalde bakoitzean ingurugiroari buruzko gai bat jorratuko da: energi-ekoizpena; zabor-bilketa; paper, plastiko eta beira birzikla-jea eta garraio ez-poluitzaileak. Honetaz gain, Udalak Florida parkean dauden zuhaitz eta hegazti-espezieen plano bat kale- ratuko du.

Bestalde, Foru Enparantzan gazteenentzako txokoa kokatuko da; Andra Mari Zuriaren Plazan herri ezberdinetako joku tradizionalak; Plaza Berrian mahai-jokuak eta eraikitze-jokuak; Loma Generala- ren Plazan partxis edo ontzi-gerra bezalako jokuen bertsio erral- doiak; Matxete Plazan simulazio eta estrategi-jokuak eta Villa Suso Jauregian ordenagailuak behar dituzten jokuak egongo dira. Jauregian bertan, denbora- pasak, tren zirkuitoak, scalextric eta bilar edo futbolin txapelketak ere izango dira.

Edu LPZ. DE LUZURIAGA



LANDABURU AKADEMIA KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ!!!

GUATEMALA - 12, BEHEA TFNOAK: 12 09 50 / 909 42 88 36



Ederki

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunikioak, bataioak
Estudioiok argazkiak
Bideo industrialak
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85





azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA

Tfno: 12 08 88

01001 - GASTEIZ



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- "kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ





euskara ikastek.
aldaparik ez



INFORMAZIOA:

- Errege erregina katolikoak, 15 C 28 89 22
- Pintoreria, 74 28 97 80
- Zaldiaran plaza, 16 24 49 05

ika

- uztaila eta iraila
- 2 eta 5 ordu

- urrats guztiak eta EGA
- Benetan (ikastxi)

- MATRIKULAZIO EPEA:
Ekainaren 2tik uztailaren 24ra

Erdi Aroko aztarna gehiago Alde Zaharrean

Gasteizek beste hiri askok bezalaxe, lur azpian ezkutatuta dauzka zenbait altxor, mendeetan bertan bizi izan zirenen aztarnak alegia



hiriko punturik altuena: itsas mailatik 550 metroko altueran dago. Bertan kokatuta dauden Fray Zakarias, Dona Maria eta Eskolak kaleak Ipar-Hego norabidean egin ziren, bihurtune txiki batekin muinoaren erliebera egokituz. Bertaraino hurbildu gara eta indusketa lanetan aritu diren Jose Angel eta Javierrekin hitz egin dugu.

Hasi ginenean buztina baino ez genuen topatzen. Baina tarteka hasi ziren gauza gehiago agertzen: txanponak, etxeke hainbat tresna... eta etxebizitza baten hondakinak aurkitu genituen

Landatxo, beraz, ez da beti landa izan?

Aurkitu dugun eraikinaren puskak eta azaldu diren tresnak ikusita esan dezage-

GURE HIRIAN, besteak beste, Florida parkean, Brulleria plazan eta Landatxo muinoan aurki daitezke Erdi Aroko harresiak, jauregiak eta elizak. Leku horietan lanen bat egiten hasten diren bakoitzean agertzen dira garai haietako hondakinak.

Esaterako, Landatxo inguruetan garajeak egin behar zituztela eta, aurretik arkeologia indusketa lanak egitea erabaki zuten. Indusketa lan horietan Gasteiz uste baino zaharragoa izan daitekeela erakusten duten hondakinak aurkitu dituzte. Horien artean antzinako etxe baten sotoa. Landatxo muinoa da, gure

Noiz hasi zineten indusketa lan hauekin?

Kontu hau 1995ean hasi zen Udalak Alde Zaharrean lur azpiko parking bat egiteko asmoa azaldu zuenean. Lanak hasi baino lehen, ordea, inguru horren balorapen arkeologiko bat egin behar zen eta guri eman ziguten ardura hori. Hasi ginen indusketekin eta ikusi genuen hondakin zahar asko zegoela. Beraz, zer edo zer eraiki behar bazen, lehenengo ondo aztertu behar genuen horko lurra.

Zer aurkitu duzue?



Arte Ederrei

buruzko sailik zabalena ezagutu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak

pintzelak

lientzoak

%10a gutxiago



euskalgintza, s.l.

oleoak

ikatzkiloak

olioak

etabar

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Urutiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2-7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



XIII eta XIV. mendeen artean eraikitakoa da. Etxea-ren eskailerak oraindik oso ongi ikusten dira. Eraikin hau ez da etxe arrunt bat, erabilitako materialak oso kalitate onekoak direlako. Gure ustez, dirudun baten eraikina izango zen edo bestela herriko etxea. Aztertu duguna sotoa izan da. Etxea abandonaturik geratu zenean, sotoa zabortezi bezala erabilia izan zen eta hondakinez betetzen hasi ziren. Eta

horrexegaitik agertu izan dira zenbait mendetako materialak, txanponak eta abar.

Jendeak ere ikusi ahal izan du zuek aurkitutakoa...

Bai, 2.000 lagun inguru etorri dira gure lanak ikustera. Oso gustoko dugu jende-ari aukera hori ematea. Arkeologia ez da hemendik urrun, Egipton eta, egiten den gauza bat. Gasteizen ere egin daitekeen zerbait da. Udaleko Hezkuntza Sailari

ku Erdi Aro hasierako mendeetan jendea bizi zela hemen bertan. Landatxok, gainera, betidanik izan du artisau eta industri lanekin zerikusia. Horregatik, orain agertu diren tresnak artisauen tailerretakoak dira. Gure gurasoek oraindik gogoratuko dute hemendik hurbil zegoen Etxauri fundizioa. Hori guztia desagertu zenean bihurtu zen landa.


Aurkitu duzuen etxea zein garaikoa da?

esker ikastexe eta ikastolako 1.300 neska-mutilek ikusi dute gure lana eta beste asko bere kabuz etorri dira. Etorkizunerako asmo berbera dugu: erakustea jendeari nolakoa zen Erdi Aroan Gasteiztarren bizimodua. Hondakinen azterketa egiten bukatzen dugunean, material horrekin zerbait egitea nahi genuke. Erdi Aroko Gasteiz ezagutzeko Udalak eskaintzen dituen bisita horiekin batera egin daiteke zerbait majoa.

Zein asmo duzue, bada, etorkizunerako?

Guk uste dugu arkeologia baliogarria dela antzinako gure arbasoen bizimodua nolakoa zen erakusteko. Arkeologiaren bitartez, jakin dezakegu Erdi Aroko Gasteizko biztanleek zer nolako elikadura zuten, etxeak eraikitzeke nolako materiala erabiltzen zuten eta beste gauza asko ere bai. Baimena berritzen badigute, ekainaren amaieran edo uztai-lean berriz hasiko gara hondakin gehiago bilatzen.

Karlos Fdz. de Betoño



APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Karrizketa

1984ko urriaren 5ean sortu zen Gasteizen. Bertakoak ditu gurasoak. "Euskaraz ikasten ari dira. Ama bosgarren urratsean ari da eta aita, berriz, lehenengoan. Ama dendaria dut eta aitak inprimategian egiten du lan".

Hamahiru urte eta bistan da Maiderren "lanbidea": ikasle da Duranan, Ikasbidean, DBHko lehenengo mailan ari da.

Eta eskolatik atera eta ingelesera joaten da Maider astean hirutan. Goizeko zazpi eta erdietan hartu behar izaten du autobusa eta arratsaldeko zazpitan bukatzen du bere "laneguna".

Astearteetan, ikastolatik heldu eta Euskadi Irratira jotzen du, Maritxu Berritsuko esatari baita duela bi urtez gero. "Jeni Prietok zuzentzen du beti programa. Gidoiak ere berak egiten ditu. Astearteetan kirolari buruzko tertulia izaten dugu. Futbola eta saskibaloia lantzen ditugu batik bat. Eta garaian garaikoa".

Osteguna du egun libre bakarra eta etxean geratzen da orduan. Etxeko lanak egiten, seguru.

Maider Ugarte Martinez de Gereñu

Maritxu Berritsuko esatari

"Ez dut GEU elkarteak ez aldizkaria eza gutzen"



Etxeko lan asko izaten duzue?

Gizarte eta matematiketan bai. Besteetan, askorik ez.

Garaia izan da eta. Zertarako balio dute eskolako azterketek?

Nire ustez, ezertarako ere ez. Irakasleek esaten

dutenez, jendea kontrolatzeko, ikasleek badakiten ala ez konprobatzeko.

Eta hori ez duzue egunero erakusten?

Ikasleen ustez bai. Irakasleen ustez ez.

Eta eskola bera, zertarako

da?

Handitan lan bat izateko eta zeure bizimodua aurrera ateratzeko.

Jatun ona zara?

Zenbait janari ez zait gustatzen eta ez dut jaten: arraina, lekak... Beste asko

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisaan lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

Herreria 38, behea
25 25 03



San Antonio, 39

euskaltasunean lagun

ere ez, baina jaten ditut.

geu gasteiz

"Ikastolan euskaraz
hitzegiten dut.
Kalean gaztelaniaz.
Lagunekin... baina
euskaldunekin, beti,
euskaraz"

geu gasteiz

Osasuntsu bizi zara?

Bai, ez dut osasunaren
kontrakorik egiten.

Zoriontsu itxura duzu, alai
eta fresko...

Bai, oso naiz zoriontsu.
Gauza txarrak burutik
kendu eta lagunekin egin
lagun. Hori da zoriontsu
bizitzeko sekretua.

Euskaraz bizi zara
Gasteizen?

Batzuek ez dakite eta
haiekin ezin da euskaraz
hitzein. Beste batzuekin,
berriz, bai. Ikastolan
euskaraz hitzegiten dut.
Kalean, gaztelaniaz.
Lagunekin... baina
euskaldunekin euskaraz.

GEU Elkartea ezagutzen
duzu?

GEU? Ez.

GEU Gasteiz aldizkaria?

Ezta.

Euskaraz dakiten denek
euskaraz hitzegiten dute
Gasteizen?

Ez. Batzuk lotsatu egiten
dira. Batzuetan jendeak
begiratu gaiztoak egiten
dizkizu. Behin edo behin
gertatu zait niri.

Pelikularik?

"Un pueblo llamado Dante
Speak"-edo, "Matilda"...

Zu ere pelikuletan zarata
egiten duten horietakoa
zara?

Batzuetan. Lagunekin
joanda, ongi pasatzeko
zarata egiten dut, arto

krispetak bota eta abar.
Baina bestelakorik ez dut
egiten.

Libururen bat?

Ez naiz oso irakurzalea.
Gauetan ohera baino lehen
beti irakurtzen dut liburu
bat, neuri gustatzen
zaidalako.

Zein da Arabaren
enbaxadore atzerrian?

Kirolariak: Taugres,
Martin Fiz...

 Miel Anjel

Elustondo

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



asteiz

Gurasoak ere... euskaraz

Kasleak gaztetxoak izan ez arren, urduri zeuden. Erronka berriari aurre egiteko prest, hala ere. Euskara ikastea erabaki zuten eta hantxe zeuden beren koaderno eta boligrafoekin irakaslearen zain. Ni Xabier naiz, nor zara zu? Zu Maria zara? Nongoa zara? Non bizi zara? Horrelaxe ekin genion lehen eskola egunari. Denak adi-adi irakasleari begira, txintik esan gabe; zer ndako estuasunak igaro zituzten!

URTEK URTERA GURASO GEHIAGO ANIMATZEN
DIRA EUSKARA IKASTERA



Gasteizen, 1997ko maiatzaren 29an

Kaixo Irakurleak:

ARANZABELA IKASTOLAKO GURASO TALDEA GARA.
HAMABI AMA GARA ETA EUSKARA IKASTEN ARI GARA.
OSO ONDO PASATZEN DUGU ETA ASKO IKASI DUGU.

ASTEAN HIRU ALDIZ ETORTZEN GARA IKASTOLARA,
GURE SEME-ALABEKIN EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI DUGUKO.
GURASO GOLTIAK ANIMATU NAHI DITUGU EUSKARA IKASTERA: LAGUN
BERRIAK EGIN DITUGULAKO, KAFEA HARTZEN DUGULAKO,
ETA AFARIK EGITEKO AUKERA DUGULAKO.

EZ ZARETE DAMUTUKO!!

AGUR ETA IKUSI DITE!!

Esther
Palmira
Cristina
Adela
Flore
Cecilia
Luis

IKASTARO HASIERAKO urduritasu-
nak, ordea, atzean geratu dira eta dagoe-
neko ikasturtea amaitu da guraso talde-
entzat. Ez zaitez harritu ez, ondo irakurri
duzu eta. Udalaren Euskara Zerbitzuaren
laguntzarekin hainbat guraso talde has-
ten da urtero euskara ikasten. Haurrak
eskolan dituzten gurasoak izaten dira eta
aurten guztira 405 aita-ama aritu dira
euskara ikasten 28 taldetan banatuta.

Guraso taldeak esan dut, baina,
behar bada, amen taldea esan beharko
nuke. Izan ere, ama gehiago etortzen da
aita baino. Udalak emandako datuen ara-
bera, 10 ikaslelik bakarra izan ohi da
gizonezkoa. Horregatik, batzuetan, soilik
emakumez osatutako taldeak egoten
dira. Horixe gertatu da, hain zuzen ere,
ikasturte honetan Aranzabela ikastolako
taldean. Taldea hamabi amek osatu dute
eta jo eta ke aritu dira urte osoan. Hantxe

izan gara lehen urratseko talde honekin
eta zer nolako esperientzia izan duten
kontatu digute.

Astean hiru aldiz izaten dituzte kla-
seak eta gehienak arrazoi berberetatik
hasi dira euskara ikasten: beren seme-
alabei etxean zertxobait laguntzeko
asmoz. Horrela aitortu digute, Aranzabe-
la Ikastolan aritu direnak: "Nire semeak
ikastolatik etxerako lanak ekartzen zitue-
nean ezin nion lagundu eta horregatik
erabaki nuen euskara ikasten hastea".
Denak bat datoz Esterrek esandakoare-
kin. "Bai, horrela da. Askotan gertatzen
da haurrak zerbait galdetzen dizula eta
ezin diozula lagundu euskaraz ez daki-
gulako. Orduan konturatzen zara umeari
lagundu nahi badiozu, guk ere euskara
ikasi behar dugula eta horregatik etor-
tzen gara".

Gustora eta borondate handiarekin



EUSKAL OKELA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ





etortzen direla adierazi dute baina, gehientsuenak nahiko ahaztuta dauzkate eskola kontuak eta beraientzat ez omen da erraza hizkuntza berri bat ikasten hastea. "Nik, adibidez, 18 urte nituenetik ez dut ikasketarik egin eta neure burua ez zegoen prestaturik. Buruko txipa aldatu behar izan dut" adierazi digu Adela.

Hala ere gauza bat oso argi dute: merezi du euskara ikasten ahalegintxo bat egitea. Gainera, beren seme-alabentzat ere oso positiboa dela onartzen dute: "Guk ezer ez dakigula botatzen digute aurpegira eta barre egiten dute guk baino gehiago dakitelako. Baina, ikusten dute gu ere euskara ikasten ari garela eta eurentzat hori oso motibagarria da". Beste ama batek ere antzeko iritzia du. "Orain guk ere eskolako lanak izaten ditugunez, beraiek laguntzen digute lan horiek egiten. Nire semea behintzat saiatzen da niri laguntzen, nahiz eta hasieran arraroa egiten ziztaion niri horrelako lanak egiten ikustea".

Euskara ikasten aritzeak sortzen dizkien buruhauste eta neke guztiak arinago egiten dira, ordea, taldeetan giro ona sortzen delako. Aitzakia txikiena nahikoa izaten dute, kafea hartzera joateko, meriendaren bat egiteko edo zergatik ez, afari eder baten ostean parranda egiteko. Irakur ezazue, Aranzabela Ikastolako guraso taldeak bidali digun eskutitza eta ikusiko duzu zein ondo pasatzen duten.

Xabier Zabaleta

hileko liburuak



MILAKA historia txikiz osaturik omen dago letra larriz idazten den Historia. Brecht-en liburuak irakurri dituenak, adibidez, badaki nork eraiki zituen Egiptoko piramideak edo Lima distiranteko etxeak. Alegia, edozein hiriren historia bere biztanleena dateke, bertan urtetan bizi izan direnen bizipenen metaketa nolabait.

Liburu honetan Gasteiz duzu hiri hori. Eta orrialdeok igarotzearekin batera, gerra zibila bukatu eta gaur egun arteko urteak igaroko dituzu. Militarrez eta apaizez jositako hiritxoari industriaren etorrerak eragin aldaketak antzemango dituzu, baina horiek guztiak gorabehera, aldakaitz irauten duena ere bai.

Eta hala ere, Gasteiz izan beharrean, berdin izan zitekeen Bombay edo Aberdeen; liburu honetako pertsonaien maitasun, beldur, gorroto, zalantza eta itxaropenak antzekoak baitira funtsean planeta honetako zoko ezberdinetan.

gasteiz kultura

HERRIKOIA aholkulari

Gasteizko hondartzak

Xabier Montoia

Susa argitaletxea

Zarautz-Iruñea, 1997

Hori da, bada, liburu honen edertasuna: Gasteizko pertsonaia txiki horiei buruzko istorio txikiak kontatzen dizkigu.

Hona hemen erakusgarri txiki bat:

Iluntzen hasia dago. Eta hala ere egun osoko sargori itogarria beti bezain astun jausi da hiriaren gainera. Giroan ez da brisarik txikerrena ere sumatzen.

Zapateria kaleko El Sotano tabernan daude Kike eta Cantero. Hemen daude, ez hau soto hezea izanik kanpoko sapaz libratzearen, egunero berton biltzen direlako baino, sekulan eguraldiari ardura ipini barik. Hotz zein bero, hauek biek gutxi aldatzen dute euren bizimodua: alkizkako bisnesen arabera antolatzen dute harakoa edo honakoa. Osterantzean, asteke edozein egunetan tabernan sartu eta hementxe ikusiko dituzuuetan, pitxer bete garagardo bana eskuan eta lantzean behin baino ez berbetan.

/.../

LA RIOJANA
jatetxea

on egin! **EGUNEKO MENUA
ETA KARTA**

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

**HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA
ALTZARIAK ETA ATSEDENA**

HOBEBE

Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44

• koltxoiak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

01004 VITORIA-GASTEIZ

Bideo jaialdien klasikoa

177 zinta lehiatuko dira ohikoa bihurtu den
Gasteizko bideo jaialdian

EKAINAREN 30ETIK
uztailaren 5era Gasteizko
XII. Bideo Jaialdia burutuko
da. Egun horietan lehiaketan
parte hartuko duten lan
bideografikoak, fikziozko

bideoak eta bideo musikalak
ikusitako dira. Bideo
jaialdiarekin batera, "Sor-
men, irudi eta identitatea
euskal ikusentzunezkoetan"
izeneko jardunaldiak gauza-
tuko dira eta, ur biltegi

zaharrear, Irudi eta Tekno-
logia Berrien Zentruak "Iru-
dia mugimenduan" erakus-
keta aurkeztuko du. Azke-
nengo egunean, Mauro
Entrialgo, Sergio Morales,
Fermin Muguruza, Manane
Rodriguez eta Angel Ami-
gok osatutako epaimahaiak
hiru ataletako irabazleen
izenak emango dituzte, baita
euskaraz aurkeztutako lan
aipagarrienari ere.


Aurtengo Bideo Jaialdia
ekainaren 30ean hasiko da
eta, ondorengo lau egune-
tan, aurkeztu diren 177 zin-
tak erakutsiko dira (78 fik-
ziozko bideo, 57 bideo
musikal eta 42 lan bideogra-
fiko). Horietatik hamabost
euskaraz egindakoak dira,
iazko kopuru bikoitza baino
gehiago. Guztiak, Villa
Susu Jauregian egongo dira
ikusgai 20:30etatik aurrera.

Emanaldi hauekin batera,
antolatzaileek aukeratutako
saio bereziak eskainiko
dituzte. Zentzu honetan,

uztailaren 1ean eta 3an,
Villa Suson bertan 7,30etan,
bideo-klip sorta bat izango
da ikusgai; hilaren 2an eta
4an, ordu eta toki berean,
bideo-kreazio sorta bat
eskainiko da. Bestalde, Den-
darabako Araba aretoan
laburmetraje aukeratu bat-
zuk ikusi ahal izango dira:
uztailaren 1ean, "Basterre-
txeren Maiorazkoa" eta
"Mirinda Hiltzaileak"; uz-
tailaren 2an, "Gipuzkoa I"
eta "Seirak puntan"; uztaila-
ren 3an, "Gipuzkoa II" eta
"Eutsi zoriontsu izateari";
uztailaren 4an, "Amalur" eta
"Akixo".

Euskal ikusentzunezkoak

Bideo Jaialdiaren barnean,
"Sorkuntza, irudi eta identi-
tatea euskal ikus-entzunez-
koetan" jardunaldiak egingo
dira. Bertan jorratuko diren
gaien artean honakoak dauz-
kagu: "Euskal ikusentzunez-
koen egitura industrial",
EHU-ko Patxi Azpillagaren



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



logia Berrien Zentrua zinema jaio zenetik (G. Melies, W. Grigffith, R. Wiene) egungo internet-errealitatera abiatuko da, tarteko aldaketak azalduz.

Ekoizpen bideografikoan sakonduz

Gasteizko Bideo Jaialdia 1985ean jaio zen bideo musikaren inguruan, batez ere. Hasiera horretatik, Jaialdiak Gasteiz "irudi elektronikoaren sormen eta hausnarketa foro bihurtu nahi izan du, indar berezia jarritz egungo punta-puntako ikusentzunezko teknologiaren erabilera kreatibo berrietan", udaleko antolaketazatik adierazi bezala.

Egun, Gasteizkoa Estatu Espainiarrean egiten diren jaialdien zaharrena omen da eta bere sorreratik zabalduz joan da bere ekintza-eremua. Ildo hone-tatik, Bideo Jaialdiak, musikarekiko zaletasuna galdu gabe, egungo ekoizpen bideografikoan sakondu nahi du "gai aldetik dituen banaketa handietan eta bide polimorfiko hori garatzen den ardatz nagu-

sietan, hain zuzen ere". Azken urteotan, Bideo Jaialdia 'arte elektroniko-en' eremura sartzen ahalegindu da, non teknologia berrietan oinarriturik errealitate birtualak, irudi ikonografikoak, holografiak, e.a. sortzen diren.

Aurrera egin nahi horrekin batera, beraz, Gasteizko Jaialdiari izena eman dion musika espezializazioari eustea da helburua; are gehiago, kontuan hartuz "Jaialdia 80ko hamarkadaren erdialdean musika aldetik zeuden kezkei laguntza emateko nolabaiteko bide berri bat izan zen. Eta, egia esan, lehia-ketan aurkeztu eta saritutako zintak aztertzen baditugu, euskal rock musikak izandako bilakaera ikus daiteke".

Epaimahaia

XII. ekitaldi honen epaimahaia bost lagunek osatu-kote: Mauro Entrialgo, komikigilea; Sergio Morales, Kanarietako Nazioarteko Bideo Jaialdiko zuzendaria; Fermin Muguruza, musikaria eta 'Esan Ozenki' produkzio-etxeko zuzendaria; Manane Rodriguez, errealizadorea eta gidoilaria; Angel Amigo, ekoizlea.

Edu Lopez de Luzuriaga

eskutik; "Sorkuntza ikusentzunezko euskarri berrietan", Iñigo Salaberriak azalduko du eta "Euskal ikusentzunezkoen kontserbazio eta ondarea" Euskal Filмотekako Peio Aldazabalek.

Honetaz gain, "Euskal ikusentzunezkoen irudia eta identitatea" mahai ingurua egingo da ETBko

Fermin Etxegoien, TV3-ko Inma Tubella, Media programako Jone Aldave eta Bideo Jaialdien aholkularia den Manuel Palaciosen partaidetzarekin.

Bideo Jaialdiaren hirugarren atala, uztailaren 1etik 5era bitartean ur biltegi zaharrean jarriko den "Irudia mugimenduan" erakusketa izango da. Irudi eta Tekno-



Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendugimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

geu gasteiz

Uztailaren 13



GEUrekin Mendira

Uztailaren bukaeran
3 egunetako
ateraldia.

Hilabete honen erdi aldera
egingo den bilera batean
zehaztuko da noiz eta nora.

INFORMAZIOA

22 21 53
(geu gasteiz)

edo

28 23 16
(Maite)

URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA • ABRILA • MAIATZA • EKAINA •
UZTAILA • ABUZTUA • IRAILA • URRIA • AZAROA • ABENDUA •

UDAKO ZINEA

AZKEN MOHIKANOA

NOIZ:

Uztailaren 23an goizeko 11etan
(aurreko egunetan gonbidapenak hartu)

NON:

IPARRALDE gizarte-etxean

NORENTZAT:

ume eta gazteentzat

XXI JAZZALDIA

NOIZ

NOR

13an

GOSPEL KONTZERTUA

14an

Bobby McFerrin

15ean

Don Byron's Bug Music
Bobby McFerrin

16an

Dr. Michael White's Jazz Band
of New Orleans
Wynton Marsalis + Elvin Jones
Quartet

17an

Iñaki Salvador
Marcus Miller, Eric Clapton,
David Sanborn, Joe Sample,
Steve Gadd

18an

Charlie Haden Quartet West &
Orquesta de Camara Jesus
Guridi
Roy Hargrove's Crisol

19an

Sphere
Monk on Monk

UDAKO LANTEGIAK

MOSAIKOAK

NOIZ:

Matrikula epea:
ekainaren 14tik uztailaren 17ra

Ikastaroa:

uztailaren 20tik 23ra - 11etatik 12,30etara

NON:

IPARRALDE gizarte-etxean

NORENTZAT:

8 eta 14 urte bitarteko umeentzat

ERAIKI EZAZU ZURE

MAHAI-JOKOAK

NOIZ:

Matrikula epea:
ekainaren 14tik uztailaren 17ra

Ikastaroa:

uztailaren 14tik 17ra - 11etatik 12,30etara

NON:

IPARRALDE gizarte-etxean

NORENTZAT:

8 eta 14 urte bitarteko umeentzat

KOMIKIAK

NOIZ:

Matrikula epea:
ekainaren 14tik uztailaren 17ra

Ikastaroa:

uztailaren 14tik 17ra - 11etatik 12,30etara

NON:

IPARRALDE gizarte-etxean

NORENTZAT:

11 eta 20 urte bitarteko gazteentzat

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



UDABERRIA
elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

1997ko Arabako Itzulia *uztailean* irolak

BOST ETAPA ETA 530 KILOMETRO EGIN BEHARKO DITUZTE TXIRRINDULARIEK



AURTENGO Arabako Txirrindulari Itzulia uztailearen 24an hasi eta 27an bukatuko da. Hain zuzen ere, horixe da aldaketarik nabarmenena, data aldaketa alegia. Izan ere, orain arte apirilean izaten zen Arabako Itzuli nagusia den hori, baina diru arazoak direla medio (dirulaguntzak, babesleak...), aurten txirrindulariek uztaileko eguzkipean dute hitzordua Arabako errepideekin. Aldaketa honek alde onak

eta txarrak ditu antolatzaileen esanetan: "Apirileko eguraldia eta uztailekoa erabat ezberdinak dira. Ezustekorik gertatzen ez bada, eguzkia izango dugu lagun, baina eguraldiarekin batek daki. Errepide ertzetan zaletu gehiago egongo dela uste dugu, asko eta asko oporretan egongo baitira. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko azken itzulia da egutegian eta hori ez da ona guretzat, ordurako txirrindulari gehienek denboraldiko onena emana baitute. Baina

Aurtengoa ez da urte erraza izan Arabako txirrindulari lasterketarik garrantzitsuen antolatzen duten arduradunentzat. Orain urte batzuk desagertu zen itzuli hori kolokan egon da hainbat hiletan beste behin ere. Halere, azkenik, antolatzaileek ez dute hutsik egin, eta 1997ko uztailean izango da proba. Guztiok eskertzen dugu erabakia, baina, batez ere, txirrindulari arabarrek.



Modeloa: F. Narvaiz "Kiko" Traffic betaurrekoekin. Ref.: TF 950465

Eguzkitako moda modazko jendearentzat

Merkatuko eguzki betaurrekorik eksklusiboenak Mendia Optikan, beste inon ez dituzu aurkituko.

EGUZKI
BETAURREKOETAN
1ak

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ




LOR ITZAZU
MENDIA OPTIKAN
TRAVEL CLUB
EGITASMOAREN
PUNTUAK.

RAY-BAN • SILHOUETTE • GIULIO TABACCHI • VOGUE • DUCCHI • POLICE • VOGART • ANGARO • STING • C. DIOR • AVENUE • SISLEY • LOIS • TRAFFIC • XS • PACO RABANNE

5 etapak kilometro-kilometro

3. etapa:

1. sektorea: Kanpezu-Agurain




Kanpezun 10etan
Agurain 12,30etan
102 km

2. sektorea: Araia-Araia



Araian Setan
Araian 5,15etan
8 km
(erlojuaren kontrakoa)

1. etapa: Bastida-Gasteiz



Bastidan 10etan
Gasteizen 1,30etan
141 km

Bola-jokoa Elosun



Legutioko urtegiaren ertzeko mendiska batean, Elosu herria dago. Bertako jendea apala, izaera onekoa, bere iraganarekin harroa eta jaiak eta ohiturak gozatzen eta mantentzen dakienetakoa. Elosun, Arabako beste hainbat herritan bezala, tarte libreetan euskaldun askorentzat ezaguna den kirola praktikatzeko da: Arabako bola-jokoa hain zuzen ere.

Kirol hau, xume eta zaila aldi berean, honetan datza: bola bat jaurti behar da lurrian kokaturiko 18-20 metroko oholetik at atera gabe azkenean dagoen txirloa jotzeko asmoz. Behin hori botata, zutik geratzen diren hiruretatik bat edo beste botatzen saiatu behar da.

Bolatokia, izarpean antzinean, gaur egun estalita dago ia herri guztietan bezala. Bertara gazteak zein zaharrak, herriko zein kanpoko jendeak jotzen du besoa probatzeko asmotan. Egun, zorionez, betidanik gizonezkoen esparrua izan den horretan gero eta emakumezko gehiago ikus daiteke. Elkarrekin egon, pasadizoak kontatu, bromak egin eta denborapasan egoteko leku ezin aproposagoa dugu bolatokia.

Antzinean elizkizunen ondoren oinez, zaldiz zein bizikletaz etorritakoek bertan ematen zuten denbora haien arteko bolo desafioetan. Gaur egun gizarteak hainbat eta hainbat aldaketa jasan arren, boloen teknika, estetika eta jaurti erak lehengo antzera mantendu egin dira. Era berean, posturak egiteko ohitura ere mantendu egin da, batzuetan dirua beste batzuetan ardoa edota merienda bera ere jokatzu.

Urtero Arabako herriarteke txapelketa egiten da. Beste bolarietara indarrak eta trebezia neurtzeko aukera ezin hobea dago. Asteburuero herri honetako 30 pertsona inguru hiru taldetan banaturik beste zenbait herritara joaten dira herri horietako taldeen aurka lehian iharduteko prest, finalera ailegatzeak ematen duen prestijioaren bila. Ikustekoa da herriko taldeetarikoa batean parte hartzeak gizon-emakume hauengan sortzen dituen poza, urduritasuna eta erantzunkizuna.

Arabako leku askotako jendea lauzpabost hilabetetan igandero biltzen da dagokion herrian bere prestijioa jokoan jarri eta anfitrioa den taldeak prestaturiko hamarre-takoaz gozatzeko. Beraz, egoera honetan umorea eta txantxak dira nagusi, elkarriketak animatuak eta masa-kirolek ohituta gauzkatzen zurrunbilotik urrun sentitzen gara; hemen zaletua baita kirolari.

Javier Garmendia
Elosuko bolaria



HegoAmerikako
jantziak edonorenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

IRVSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

uskal

Abialdian

askatasunaren ibilaldia

EGUN IKUSIKO DIRA AZKEN HILABETEOTAN
SARTUTAKO LANORDUEK ERAGINDAKO FRUITUAK



20 urte igaro dira jada. "Abialdian" hartatik. Zertan aldatu dira ordutik hona abertzaleon askatasun eskakizunak

Funtsean ezer gutxi aldatu dira eskakizunok, gure ustez behintzat. Jantzi ezberdinez jantzen gara egun, argi da. Duela hogeituroko argazkiei begiratzea nahikoa da horri erreparatzeko. Baina oinarrizko arazoa, duela hogeituro bezala, Euskal Herriari herri bezala dagozkion oinarrizko eskubideak ez onartzean datza. Hogeituro urte hauetan gure herriarentzat gauza eder asko gertatu dela inoiz ahaztu gabe, Euskal Herriari ez zaio bere etorkizuna erabakitzeko eskubiderik onartu oraindik ere. Honek, oztopo handiak jartzen dizkie abertzaleei arlo ezberdinetan. Hezkuntza, hiz-

kuntza, kultura, ekonomia... Komunikabideetan etengabe agertzen zaizkigu honen ondorioen aurpegi ezberdinak. Hala ere, euskal herritarrok erabaki eta proiektu askoren protagonistak izan gara. Ezinari ekinez erantzun diogu, hala nola ikastolen mugimenduaosatzen, udako euskal unibertsitate bat antolatzen, erabat euskalduna den egunkari bat bultzatzen, euskalduntze alfabetatze arloa lantzen, kooperatiba mugimendu indartsua sortzen Ipar zein Hego Euskal Herrian...

Herritarren sostenguz eta lanez gauzaturiko lorpen hauek eskaintzen zaigun errealitatea euskal herritarren borondatearekin ez datorrela bat adierazten dute. Bitartean, komunikazio bitartekoen

1977ko uztaila. Franko diktadorearen heriotzaren ostean, giroa zeharo berotua zegoen oraindik. Espainiarren etorkizuna kolokan zegoen, baina ez zen urduritasuna espainiarren artean bakarrik. Euskaldunok, esaterako, hainbat eta hainbat kezka genituen barne-barnean. Horrexegatik, ingurugiro zail horri muzin eginez, milioi erdi euskaldunek kalea hartu zuten, inoiz Euskal Herrian eginiko ekitaldirik jendetsuenean. Hura gogoratu nahiean, egunotan, 20 urte beranduago, martxa hura errepikatu nahi izan dute aurten, 1997ko Abialdian Askatasunaren Martxako antolatzaileek.

garapen izugarria, ekonomiaren mundializazioa, kulturgintzaren uniformizazioa hazkorra... gurearen egoeran dagoen herri ororentzat, munduan garatzen ari diren aldaketa bizkor hauekin lanean berehala hasteko beharra iragarria dago. Guzti honengatik, etorkizuna eraikitzen hasteko ordua delako, duela hogeituroko ibilaldian bezalaxe, Euskal Herriak bere herri izaera eta eskubideak aldarrikatuko ditu aurtun ere urratsez urrats.

Euskararen bilakaerari jarri zaizkion oztopoak aipatzen dira zuen manifestuan. Zein leku hartzen du baina, gure hizkuntzak zuen errebindikapenetan?

Herri baten bihotzean hizkuntzak hartzen duena. Leku asko ezinbestean, eus-

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81


GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



kal herritarron hizkuntza gure bihotz kolektiboaren zati handi bat dela baiteritzogu. Hizkuntza edozein herriren ardatza da. Zentzu hone-tan, behin eta berriro errepika-tu beharreko mezua dugu oraindik ere euskara ez dela hizkuntza ofiziala Euskal Herri osoan, eta arrotza zaion estatus politiko eta juridiko batzuen menpekora dela. Ofizialtasuna duen herrialdeetan ere administra-zioak euskaldunen eskubideak sarritan zanpatzen dituzte-la egun ere. Eskola anitzek ez dutela euskal herritar guz-tiek euren hizkuntzan alfabe-tizatuak izateko duten esku-bidea bermatzen, legeak eskatzen duena saihestuz... Gure herri eskubideak ez onartzearen ondorioz admi-nistrazio ezberdinetan zati-tuak izateak baduela eragin zuzena euskararengan ere.

**Martxaren oinarri-
bueltatuz, zer nolako
erantzuna espero
duzue, eta zein talde
eta sektoreetatik?**

Bere etorkizuna ziurtatzeko hamaika aldiz adoretu azal-du izan den herriaren erant-zuna espero dugu. Abertzale-ena. Gure manifestuak aniz-tasuna du oinarrietako bat, duela hogeit urte alderdi eta sektore ezberdinetako abert-zaleak proiektu amankomun honetan biltzeko modua topatu zutela gogoan dugula-ko eta, halaber, horren bere-biziko premia dugula irudit-zen zaigulako. Askatasuna-ren Ibilaldia abertzaleon topagune izango den propo-samen bat bihurtzea gure helburuetako bat da.

**Euskal Herri osoa zeharkatu-
ko du "Abialdian"ek. Nola
konponduko dituzue sor dai-
tezkeen arazoak (Urgentziak,
lo egiteko lekua eta abar)?**

Beno, Korrika eza-
gutzen duenak berehala har-
tuko dio neurria orain esango
diodanari. Izan ere, Korrikan
bezala, gutxieneko tropel bat
osatuko dugu ibiltariak,
aurreko furgoneta, atzeko
anbulantzia, prentsakoen

autoa eta gainera-
koekin. Lo egite-
ko, herriz herri
ditugun laguntza
taldeak lan eskerga
egingo dute,
beraiek arduratzen
baitira horretaz.
Tropeleko osagarri
ezberdinak eta
herriz herriko tal-
deen arteko koor-
dinazioa izango da
gakoa.

**Eta martxa bukatzeko Gerni-
kako erakusketa. Zer aurki
dezake bertara hurbiltzen
denak?**

Gerniakoa erakusketa bat
baino askoz gehiago izango
da. Jaialdi bat izango da, era-
kusketarekin noski, baina
baita kantaldi, dantza, janari,
aldarrikapen eta guzti. Uztai-
laren 26an izango da eta bost
gune izango ditu
jaialdiak: Araba, Biz-
kaia, Gipuzkoa,
Lapurdi-Zuberoa eta
Nafarroa. Bertan,
herrialde bakoitzeko
adierazgarriak bisita-
tu ahal izango dira jai
giroan.

Bezperan helduko
da, ordea, Ibilaldia
Gernikara, uztailaren
25ean. Bertan, kan-
paldi bat izango da
eta baita kontzertu
bat ere. Esan behar
da, jakina, marxistek
ez dutela sarrerarik
ordaindu beharko.
Zergatik? Ibilldiara

sartzerakoan 2.000 pezeta
ordainduak izango dituztela-
ko. Izan ere, 2.000 pezeta
horiek, ibilaldian bere osota-
sunean parte hartzeko esku-
bideaz gain, ibilaldiaren
inguruan antolatutako ekital-
di guztietara dohain sartu
ahal izateko ekubidea ema-
ten dute. Ibiltari gisa nork
parte hartu duen jakiteko,
ordaindu ahala ikur txiki bat
emango zaie guztiei. 2.000
pezeta horiek ordaindu behar
izango ez dituzten bakarrak,
etapa bakarrean parte hartze-
ko asmoa dutenak izango
dira. Gainerakoek, ibiltariei
eskainiko zaizkien lo lekua,
gosaria, ekitaldi ezberdinetar-
ako dohaineko sarrera eta
motxilen garraioaren truke,
2.000 pezeta ordainduz iku-
rra eskuratu beharko dute.

Asier Pz. de Karkamo



EGOA LIBURUDENDA

LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 11 88 95

plató
TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10

☎ 22 65 64
GASTEIZ

PAPERDENDA

ZuhaiZti

den-dena
bizriziklatua

OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxilleria, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

Euskalerria Ibilian ikasiz

Gauzak ibilian egiten omen dira. Maxima hau hitzez hitz hartu, eta errepideak hartu zituen Euskal Herriak bere burujabetasun, askatasun eskubideak aldarrikatu. Duela hogeitaz urte izan zen. Ibili ginen, asko ibili ere. Francoren desagertzeak ekarri zuen ilusio korronteak uholdeka bete zituen gure bideak. Abertzaleak bat egin zuten ibiltze horretan. Elkartasuna nagusi esperantza arnasten zen une hartan.

Gero, ukatu ezina da, hamaika lorpen burutu ditugu, gure ekimenaren mami den manifestuak dioen bezala: "tipi-tapa, etengabe, Herri honek ibilbide luze eta eman-korra bete du. Euskal Herria martxan dago, ibiltzeko grina une oro erakusten du". Hau ikusi behar, noski. Ikasi, egiteko asko dagoela oraindik ikasi dugu, aurrera-pausoen alboan atzerapausoak ere topatzen ditugulako. Atzerapauso hauen erroa, euskal herritarrek euren etorkizunari begira hain garrantzikoak zaizkien arlo ezberdinak -hezkuntza sistema, marko ekonomikoa, euskararen normalizaioa, herrialde ezberdien arteko harremanak...- menpekotasunik gabe jorratzeko ahalmenik ez izatea, zuzendu egin behar da. Honetarako, etorkizunaren izenean ilusioz abiatzea ikasgai berrindartuta bilakatu beharra dago ahalik eta azkarren, gizateria zurrumbilo etengabea, une oso garrantzitsu batean murgilduta dabilelako, gu barne. Ezin dugu begien bistatik galdu etorkizunaren argia. "Etorkizun berri bat ari da urratzen gizarte moderno honetan. Dibertsitate eta aniztasunean sortutako etorkizuna, hain zuzen ere. Eta euskaldunok ere erronka berri baten aurrean gara. Gizarte honetan izateko izena baino gehiago behar dugu". Europako herririk zaharrena izanda ere beste herri batzuek gure etorkizuna zirriborratzen dutela ikusia dugulako, bideari ekiteko grina beretsua hemen dugu, lehen Askatasun Ibilaldia eta hogeitaz urte beranduago. Ekainaren 29an jarriko da martxan Iruñetik. Zatoz gurekin, Askatasunerantz abian!

Azken hilabeteotan hainbat ekitaldi

◦ MAIATZAREN 7AN:

Abialdian, Askatasunaren ibilaldiaren aurkezpen saioa, Gasteizko Blusen Elkartean

◦ MAIATZAREN 28AN:

'20 urte euskal literaturan', mahaingurua Filologiako Fakultatean. Partehartzaileak: Pako Aristi eta Patxi Zabaleta. Moderatzailea: Kirmen Uribe

◦ MAIATZAREN 29AN:

Zine Forum-a Aihotz Plazan. Eskeiniriko filma: "La estrategia del caracol"

◦ MAIATZAREN 29AN:

Zine Forum-a Aihotz Plazan. Emaniko filma: "Haz lo que debes". 'Abialdian'eko bideoa aurkeztu eta eman zen ere.

◦ EKAINAREN 19AN:

'20 urte euskal musikan' hitzaldia Gasteizko Gaztetxean. Arabar musikako atzoko eta gaurko hainbat pertsonai ezagun egon zen bertan.

◦ EKAINAREN 20AN:

Bertso saioa eta kontzertua. Arrate eta Ixabel izan ziren kantari.

◦ EKAINAREN 20AN:

Erakusketa Andre Mari Zuriaren Plazan.

◦ EKAINAREN 25AN:

Mahaingurua. Duela 20 urte martxan partaide izan zirenek osaturikoa. Orduko eta aurtengo martxak izan ziren aztergai.



◦ UZTAILAREN 2AN:

Mahainguru intersindikala: 'Euskal ekonomia bilakaera azken 20 urteotan'

abialdian
askatasunaren ibilaldia



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA


ZARAMAGA

Eric Clapton, legenda bizia Gasteizen zuzen-zuzenean



Uztailaren hamazazpian,
Gasteizko Jazz Jaialdian, Eric Clapton
gitarrajole mitikoa ikusteko eta entzuteko
aukera paregabekoa izango dugu. Hala ere,

Clapton ez zaigu bakarlari gisa
hurbilduko, baizik eta Legends taldeko
musikariekin batera. Claptonek
protagonismoa bereganatu nahi ez arren,
gau horretan bera izango da izar nagusia
eta 17an Mendizorrotza Kiroldegiak
gainezka egiten duenean denok jakingo
dugu nor den horren erruduna.



Floridako altxorra !

35

adaka 
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

CLAPTON parte hartu zuen lehenengo taldeak The Roosters zuen izena. Bizitza laburra, inoiz baxujolerik izan ez zuen laukote honena. Hurrengoarekin, berriz, Clapton izenak ospea lortzeko estreineko urratsa eman zuen.

ARRAKASTARAKO BIDEA.

1965. urtean Eric Clapton John Mayall-en Bluesbreakers taldean sartu zen. Clapton ohartu zen Estatu Batuetako musikagileak imitatzea baino zerbait gehiago egin zezakela: blueslarien joera garatu zuen. 1966. urtean Londresen "Clapton Is God" ("Clapton Jaungoikoa da") aldarrikatzen zuten grafitti ospetsuak agertu ziren lehenengoz. Urte berean "John Mayall's Bluesbreakers with Eric Clapton" izeneko diskoa agertu zen eta hain erakargarria suertatu zen Britaina Handiko musikagileen ezean, laster, Clapton-ek imitatzaile zerrenda luze bat izan bait zuen. "Hideway", "Ramblin on my Mind", edo "Have you Heard" abestiek erakusten zuten Ripleytarren maisu zigilu marka. Mayall-ekin arrakastari heldu bazion ere, Clapton aspertu egin zen berehala haren musika tankera bereziarekin eta erronka musikal berriei ekin zien.



CREAM.

1966. urtearen amaieran, Clapton-ek, Jack Bruce-rekin eta Ginger Baker-ekin batera, The Cream taldea sortu zuen. Musika prentsak bazter guztietara zabaldu zuen berria: Ingalaterrako rock musikaririk onenak elkartu ziren estreineko supertaldea abian jartzeko.

"Fresh Cream", urte hartako abenduan kaleratu zelarik, izan zen taldearen lehenengo lana. Diskoak hirukotearen joera argi eta garbi azaltzen zuen: gainera inprobisatu ahal izateko akorde gutxiko abestiak nahiago zituzten Cream-ekoek.

Bigarren lanarekin ("Disraeli Gears") taldea blues-etik aldendu zen. 1967. urtearen erdian Clapton-ek zera aitortu zuen Rolling Stone aldizkarian: "Blues-a

garrantzi handikoa da niretzat. Hala ere, gaur egun ez dut bluesik jotzen".

1967ko abuztutik 1968ko uztailean Cream-ek bere karreraren punturik gorena lortu zuen; "Disraeli Gears" Lp-ak eta "Sunshine of Your Love" singleak planeta osoko zerrendetako postu altuenetara eramane zituen Clapton, Baker eta Bruce. Ulertezina zirudien arren, Estatu Batuetan zehar arrakasta handiko jira bat gauzatu ondoren, taldea banandu egin zen.

LAYLA ETA DEREK AND THE DOMINOS.

Ondoren, Clapton musikari ospetsuekin jotzen aritu zen. Howlin' Wolf-ek, Steve Stills-ek, Dr. John-ek eta George Harrison-ek, besteak beste, lagun izan zuten Clapton-en gitarra 1970.eko urte hartan.

Jarraian, Jimi Gordon bateriak, Carl Radlek baxujoleak, Bobby Whitlock-ek, tekleetan, eta Clapton-ek berak Derek and The Dominos izeneko taldea osatu zuten. Gitarrajoleak nahi zuen jendeak proiektu berri hau ere onartzea baina ez bere izenarengatik, taldearen musika gaitasunarengatik baizik. Horrengatik, ezkutatatu egin zen Clapton izen luze horren atzean eta "Layla and Other Assorted Love Songs" diskoa agertu arte, oso jende gutxi jakin zuen bera talde honen gitarra lanetan sartuta zegoela.

"Layla" abestiarekin Eric-ek argi eta garbi azaldu zuen nolakoa zen bere neurri musikala: abeslari ona, konpositore bikaina eta kitarrajole ezin hobea. Baina

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA
KUTXI
kalean

UDAN IKASI EUSKARA KORRIKA!
Peru 8
22 60 50
Jose Mardones 8
26 35 40
Arana 30
25 24 00

Xabier
taberna
musika ona
eta giro
ezinhobea
Kutxileria 23

OKO!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

Argazki - Estudio
Eramun
Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02 01006
Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91 01004

“Layla” ez zen disko haren kanta bakarra, harekin batera “Have You Ever Loved a Woman”, “Keep on Growing” edo Jimmi Hendrix-en “Little Wing” abesti izugarriak aurki genitzake ere.

ERIC CLAPTON BAKARLARIA.

1974. urtearen hasieran Claptonek, droga munduan sartuta egon ondoren, heroina utzi eta “461 Ocean Boulevard” izeneko lp-a kaleratu zuen udan. Nahiz eta lehen aldiz azaldu lan batean bakar-lari gisa, disko horrek eutsi zion aurreko Clapton-en ezaugarriei. Estreineko singlea, Bob Marley-ren “I Shot the Sheriff” hain zuzen ere, zerrendetako lehendabiziko postura igon zen.

Hurrengo urteko diskoa, “There’s One in Every Crowd”, oihartzun zabalik gabe ailegatu zen dendetara. 1976.eko “No Reason to Cry”-ekin, gauza bera gertatu zen, diskoa bikaina izan arren (ez dezagun ahaztu Bob Dylan-ekin batera abestutako “Sing Language” kanta izugarria).

1977. urteak, berriz, Clapton musikaren gailurrera eraman zuen berriro ere. J.J. Cale-ren eta Don Williams-en eraginpean, Claptonek bere lanik harmoniatsuena sortu zuen, gitarra berriro nagusi zelarik. “Slowhand” kanta hobezinez beterik zegoen.

SLOWHAND ETA GERO.

“Slowhand” argitaratu ondoren Clapton-ek bere karreraren punturik altuena



lortu zuen. Zaila zen mailari eustea. 1978ko “Backless”, Muddy Waters-ekin zerturiko 1979.eko jira, zuzenean grabatutako “Just One Night” ederra eta “Another Ticket” izan ziren 70eko hamarkada itxi eta 80koa zabaldu zuten lanak. Claptonek gitarrajole onenen artean jarraitzen zuen, baina osasunak, alkoholak jota, ez zion agertzen uzten.

1983an, “Money and Cigarettes” Lp-arekin, Clapton-ek bere argitasuna berreskuratu zuen.

PRODUKZIO ERRALDOIEN GARAI.

1985. urteko “Behind the Sun” diskoa zela medio Clapton-ek produkzio erraldioen garaiari ateak zabaldu zizkion. Eric-ek, argitaletxearen menpe, baze-kien musika munduan jarraitu ahal izateko merkatuari aurrez aurre begiratu

usika

behar ziola. Hemendik aurrera Clapton-en lanak bere iraupena banatu beharko dute: abesti batzuek betiko blues-aren soinuari eutsiko diote, beste batzuek, ordea, irratietatik emititzeko gauzatuak izango dira. “August” eta “Journeyman” lanek gitarrajoleak ohorezko lekua galdu ez dezan balio izango dute, besterik ez.

1991. urtean, Connor Clapton-en heriotza gertatu zen. Semearen desagerpenak erabat minduta utzi zuen aita eta “Tears in Heaven” abestia eskainiko dio, 1993ko “Unplugged” lanarekin batera urteko abestirik eta diskorik onenari emandako Grammy-ak eskuratu zituztenean.

Iaz, blues klasikoz osaturiko “From the Cradle” diskoa atera zuen. Gaur egun, badirudi Clapton-ek nahi duena egin dezakeela. Inork ez dio esan behar bere musikak nondik jo behar duen. Merkatua ez da bere ugazaba. Clapton izena aipatzea nahikoa da salmenta izugarria lortzeko.

Orain Gasteizen izango dugu, bere karreran bide berri bat zabalduz, jazz-ean murgilduz. Dasta ezazu.

Txabi Arnal Gil

geu gasteiz

“Gorabehera handiz
beterik dago
Clapton-en karrera”

geu gasteiz

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54



Lorea Zurimendi

Spicegirlsmaniak gogorki erasotu gaitu

Spice Girls musika taldeak mundua bereganatu du eta herrialde ezberdinetako gazteek gauza amankomun bat izatea lortu dute: talde honekiko mirespena eta erakarpen izugarria. Fenomeno honek, batez ere, etxeko gazteenak erasotu ditu, indar handiarekin erasotu ere. Gaztetxoak ez bagara, ezingo dugu ondo ulertu Londoneko neska hauek daukaten arrakasta izugarria. Esate baterako ikastetako hormak euren argazkiez beteak daude eta jolas-orduetan euren musikarekin koreografiak prestatzen dituzte. Zer daukate neska hauek gure mostrongoak horrela txoratzeke? Zein da taldeko neskarik mirestvena? Eta zein abesti arrakastatsvena? Hauek guztiak argitzeko Spice Girls fenomenoak gogor erasotu duen ikastola bat bisitatu dugu: Odon de Apraiz.



NIRETZAT Spice

Girls-koak munduko abeslari onenak dira, oso ondo abesten baitute. Bostak oso jatorrak baldin badira ere, nire ustean onena Emma da, besteak txuloagoak eta sexiagoak baitira. Martxosoena Geri da eta Victoria ez zait batere gustatzen, serioegia baita.

Janire, 10 urte

TALDE izugarria da.

Geri asko gustatzen zait eta itsusiena Victoria da. Geri oso sexia da, baita politena ere. Geriren hilea gustatzen zait eta bere oinetakoak ere bai. Ondo abesten duena Melani C. da.

Eduene, 10 urte

AHOTS izugarriak eta abestiak zoragarriak dira.

Nire ustez Geri da politena eta erakargarriena. Bestetik, Melanik dantzatzean ostikadak ematen ditu, karate jakingo balu bezala.

Pedro Jose, 11 urte

NIRI Spice Girls taldea izugarri gustatzen zait. Oso politak dira. Oso onak direla uste dut. Abesti martxosoena "Wannabe" da. Politena Emma da. Gasteiza etorriko balira, nire ikastolara etortzea nahi nuke.

Omagra, 10 urte

SPICE Girls taldea asko

gustatzen zait, ondo abesten eta dantzatzen baitute. Onena Melanie C. da, polita, kirolaria eta jatorrena baita. Traketsena Victoria da, errobot baten moduan dantzatzen du. "Wannabe" da gustokoen dudan abestia.

Nerea, 11 urte

OSO ondo abesten dute eta guztiak txokolatea bezalakoa dira. Gustokoena Victoria Adams da, bere aurpegia eta gorputzarengatik. Amesten dut Gasteizera etorriko direla eta Victoria nire etxera etorriko dela kontzertua amaitu bezain las-

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrantea:

entitatea

bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53

ter. Abesti politena
"2become1" da, oso lasaia
baita.

Ivan, 11 urte

GEHIEN gustatzen zai-
dana Victoria da. Talde
hau primerakoa baldin
bada ere, Back Street Boys
taldea ere miresten dut.
Nire gelako mutil batzuk
eta nik, Back Street Boys
taldearen moduan dantza-
tzen dugu eta oso ondorio
onak lortu ditugu.

Javier, 10 urte

TALDE hau asko
miresten dut. Geri eta Vic-
toria politenak dira, euren
begiak oso politak direla-
ko. Melanie Brown, abes-
lari txarrena izateaz
gain, igelen moduan
egiten du salto. Euren
itxura imitatze-
ko tatuaje bat egingo dut
nire gorputzean.

Ruben, 11 urte

MIRESLA asko
dituzte, oso ondo
abesten dutelako eta
oso gorputz onak
dituztelako. Euren
janzkera gustokoa dut,

oso motza baita. Talde
zoragarria baldin bada ere,
niretzat munduko talde
onena Back Street Boys
da. Bere musika martxoso-
agoa ezezik, estilo gehia-
gokoa ere bada.

Geray, 10 urte

SPICE Girls-ak kutre
batzuk dira. Nire ustez
euren abestiak helduentza-
ko dira, ez umeentzako.
Hau gutxi balitz, ez dira
abeslari onak eta edozer
gauza egiteko gai dira
diruaren truke: liburu bat
argitaratzea, bideo bat...

Ania, 10 urte

NIRE iritzian oso txa-
rrak dira. Euren hitzak ez

dira aproposenak umeent-
zat. Taldetik gustatzen zai-
dana beren janzkera da.

Thara, 10 urte

TALDEA gustatu, gus-
tatzen zait. Halere txarrena
da leku guztietan agertzen
direla eta beraietaz asper-
tuta gaude. Oso erakarga-
rriak baldin badira ere,
daramatzaten arropak ez
dira batere aproposak
beren adineko neskentzat,
gazteegiak dira. Victoria
eta Emma taldekideak
ditut gustokoen. Gainera
Gasteizera etorriko balira,
hiria ezagutzera eramango
nituzke.

Yoalli, 11 urte



X edorta sanz



Portal
del
Rey 9

GASTEIZ

JANTZI ETA
OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

HAURRAK ZAINZEN DITUGU

GOIZEZ

Nekane	26 91 53
Eduardo	14 21 99
Leire	27 32 81
Lorena	27 10 13
Ainara	24 04 42
Ana	26 65 95
Eriete	29 96 50

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35
Aintzane	27 09 64
Iratxe	24 51 81
Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13
Patrizia	27 78 19
Leire	23 12 23
Maidar	24 90 62

GAUEZ

Esther	27 84 57
Idoia	24 47 79
Lorena	27 10 13
Montse	26 78 12
Ainara	23 38 28
Txaro	28 08 85
Maidar	24 90 62
Arrate	25 64 01

ASTE BURUAN

Olatz	25 61 20
Montse	26 78 12
Arrate	25 64 01
Elena	14 37 28
Leire	23 12 23
Jose Angel	27 62 14
Saida	26 58 05
Idoia	24 47 79
Maidar	24 90 62
Belen	13 65 10
Monika	13 86 21
Itziar	13 86 21
Maria Jesus	13 54 35
Estitxu	25 99 60



PIERCING

UAM... BALITEKE ARRAZOI
IZATEA. ITXURA NAHIKO
POTROSOAREKIN NABIL

HAI DUK POZA,
PARKEAN AHATZ
BAT LORTU DUT!

BEGIRA
TIPO HURA!

HORI DUK
ITXURA, PUJ!

ITXURAZ
ALDATU BEHAR
DUT...

BERRITU
...

BERRITU
...

BERRITU...

ERABAKIA
HARTU DUT!

UI, UI, UI, MODAU
IBILTZEA MIN-
GARRIA DA!
...

ARRG

Arabako Foru Aldundiak INFOPOINT *instalatu du*

EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO GUNEA

Hemendik aurrera, **Infopointen** bitartez, arabar guztiek Europako Batasunaren inguruko edozein informazioa eskuratu ahal izango dugu.

Infopointen, langile adituek Europaren errealitateari buruzko informazioa, datu baseak, bideoak, liburuskak eta beste hainbat eta hainbat agiri mota eskainiko dituzte: hezkuntza, ekonomia, kultura, politika, gizartea eta abar.

- Europari buruzko eztabaidarako leiho irekia.
- Europako Batasunaren inguruko informaziorik interesgarrienerako sarbidea.
- Enplegurako heziketa eta prestakuntza aregotzen lagunduko duen bidea.
- Kulturen elkartrukerako topagunea.

Hau guztia eta askoz gehiago da **Infopoint**.

Infopoint EUROPE

Probintzia plaza, 5

Tfnoa.: 18 19 00

Faxa: 18 17 54

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

9:00etatik 14:00etara

Larunbatetan:

9:00etatik 13:00etara

Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia



INFOPOINT EUROPE

PUNTO DE INFORMACION EUROPEA
EUROPARI BURUZKO INFORMAZIO GUNEA

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



Z E
E L
R E
B B
I I
T U
Z N
U A
K